



Ajangizko Udala

**ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA; OBRAK JENDAURREAN ZABALDU GABE
ETA NEGOIAZIO BIDEZ KONTRATATZEA**

MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN I. FASEA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren gaia Ajangizko Maier-Mendieta bitarteko landabidea egokitzeko lanen I.fasea da, Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorritik egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2. OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea hau da: hiru hilabete. Zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epe hori.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa 185.880,60 € izango da, BEZ barne. Eskaintzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Eskaintzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioaren oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lehiatzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

4. FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

5. NOLA ORDAINDU

Obra burutuak aldizka ordainduko dira, egiaztagiria egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek.



Ajangizko Udala

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

7. BERMEAK

Kontratuaren behin-behineko esleipendunak %5eko behin betiko bermea eman beharko du, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko. Kopuru hori esleipeneko zenbatekoaren % 5ekoa izango da, BEZ gabe.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamabost egunekoa izango da, kontratuaren esleipena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri egingo da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra-kontratuaren burutzapena, eta hori hilabete bateko epean izan beharko da, kontratua sinatu den egunetik kontatzen hasita.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoak eta urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoiei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK



Ajangizko Udala

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 220.e) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu. Esleipendunak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

12. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak esleitzailearen esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera, URTE BETEko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleitzailearen esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.



Ajangizko Udala

13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

Lanak burutzean 8. klausulan adierazitako gizartearen edo ingurumenaren arloko baldintza bereziak betetzen ez badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206 eta 220. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II. KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA



Ajangizko Udala

16. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena negoziazio bidez egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153 eta 162. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, testu horren 155 d) artikuluan jasotako kasua baita.

Honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat (garrantzi eta haztapenaren arabera ordenatuta), gero kontratuaren esleipena egiteko:

A.- Eskaintzaren Balorazio Ekonomikoa:

0 eta 60 puntu bitarteko puntuazioa. Gehienezko puntuazioa: 60 puntu

Lizitazioaren bajak kalkulaturik, zero eta gehienezko bajaren arteko tartea lau zati berdinetan banatzen da.

- Lehen tartean dauden eskaintzek, hau da 0 eta gehienezko bajaren 1/4-a bitartekoek, 15 puntu lortuko dituzte.
- Bigarren tartean dauden eskaintzek, gehienezko bajaren 1/4 (barne) eta 1/2 bitartekoek, 30 puntu lortuko dituzte.
- Hirugarren tartean dauden eskaintzek, gehienezko bajaren 1/2 (barne) eta 3/4 bitartekoek, 45 puntu lortuko dituzte.
- Laugarren tartean dauden eskaintzek, gehienezko bajaren 3/4 (barne) eta gehienezko baja bitartekoek, 60 puntu lortuko dituzte.

B.- Lanaren ikerketa maila eta exekuzio epea:

0 eta 30 bitarteko puntuazioa. Gehienezko puntuazioa: 30 puntu.

- Obraren estudioa, arazorik larrienak eta arazo horiek gainditzeko hartuko diren neurriak azalduz, **15 punturaino**.
- Lanaren antolaketa, **10 punturaino**.
- Exekuzio epearen murriztea: **gehienez 5 puntu** lortu ahal izango dira, **ZAZPI (7) EGUN EDO GEHIAGO** murrizten bada, beti ere epeen murrizketa hori **aurkeztutako baldintzen arabera justifikagarri** baldin bada eta ondorioz murrizketa hori burutzea posible bada.

C.- Kontrataristak aurkeztutako balio teknikoa

0 eta 10 bitarteko puntuazioa. Gehienezko puntuazioa: 10 puntu.

- Eskaintako neurriak exekuzio epera eta proposatutako lanen planarekin bat badator, **gehienez 6 punturaino**.
- Eskaintako materiale eta ekipoen kalitatea, **gehienez 4 punturaino**.

Aipatutako irizpideak eta kontratuari lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edota logistikoko negoziatuko da parte-hartzaileekin.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA



Ajangizko Udala

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzekeo debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzekeo eta ebaluatzekeo bideak 18.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzekeo gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA PARTE HARTZAILEEKIN NEGOZIATZEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Administrazio honetako Bulegoetan.

ORDUAK: 9 : 00 - 14 : 00

EPEA: Egun baliodunetan, parte hartzekeo eskabideak aurkeztekeo epea bukatu arte.

Gonbidatutako enpresek kartazal bakarria aurkeztu beharko dute. Kartazalean honako hau idatziko da: “MAIER MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN I. FASEA KONTRATATZEKO NEGOZIAZIO BIDEZKO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Hona hemen kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin bada, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jardura zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-



Ajangizko Udala

erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua bada, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, honako frogagiriak aurkeztu beharko dituzte:

e.1) Finantzia entitateen bidezko aitortpenak, edo kasua bada, ezbehar profesionalak betetzen dituen aseguru bat izatearen justifikantea.

Bidezko arrazoiak direla medio enpresariak eskatutako agiri hauek aurkezterik izango ez balu, kontratazio organuak ondo deritzon bestelako agiriren bidez kreditatu ahal izango du ekonomi eta finantza-kaudimena.

e.2) Azken bost urtetan burututako lanen zerrenda, labur baina era argi eta konkretuki lan honekin zerikusirik gehien dutenen deskribapena azalduz.

e.3) Lan hauek burutzeko eskura izando dituzten teknikari edo unitate teknikoaren deskribapena, enpresaren parte izan edo ez; bereziki kalitatearen kontrolaren arduradunak.

e.4) Lanak burutzeko erabiliko diren makina, material eta ekipo teknikoa azaltzen duen aldarrikapena.

e.5) Enpresaren urteko langilegoaren media eta azken hiru urtetan zuzendaritzak langilegoaren median izan duen garrantzia.

Halaber, enpresariaren klasifikazioak, klasifikazio hori lortu den lanetarako eta hauek burutzeko klasifikazioa indarrean izatea eskatzen duten kasuetan, lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala kreditatzeko nahikoa izango da.

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimena baldintzak zehaztu eta egiaztatatu ahal izateko.



Ajangizko Udala

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokoen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

h) Honako eredu honen arabera

DIRU-PROPOSAMENA

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea, NAN,, Telefonoa

Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea, NAN edo IFK,, Telefonoa

..... kontratatzeko asmozk dei egindako negoziazio bidezko lehiaketan parte hartzeko gonbita jaso dudala, hona hemen nire

ADIERAZPENA

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: € Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da, € BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudana enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)koaren(a)

Izenpea

Baldintza honetako a), b), c), d), e), f) eta g) puntuetan zehaztutako dokumentaziorik gabe aurkeztu daitezke proposamenak, baina kasu horretan, behin-behineko esleipendunak behin betiko esleipena gauzatu aurretik aurkeztu beharko ditu.



Ajangizko Udala

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLaren 73. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen eskaintzaileen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

Gonbitean adierazitako epearen barruan jasotako eskaintzekin 16. baldintzaren arabera ezarritako esleipen-irizpideak eta kontratuari lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edota logistiko negoziatzen hasiko da.

Negoiazioa amaitzean, baldintzak aldatzeko konpromisoa hartu dutenek azken eskaintza aurkeztu beharko dute, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena zein den balioetsi eta hautatzeko.

19. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Proposamenak ikusirik, eta, egoki denean, lehiatzaileekin negoziazioak egin ondoren, espediente organo eskudunari aurkeztuko zaio, esleipena egin dezan.

Proposamenak ikusirik, eta, egoki denean, lehiatzaileekin negoziazioak egin ondoren, Kontratazio Mahaiak espediente aztertuko du eta esleipena egiteko proposamena aurkeztuko dio organo eskudunari. Proposamen horretan zehaztuko eta finkatuko dira kontratuaren behin betiko xedapenak.

Behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta egutegiko hamabost eguneko epean honakoak egin beharko ditu behin-behineko esleipendunak:

- a) egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu, baita kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko dokumentua ere, hala badagokio.
- b) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.

Behin-behineko esleipena behin betiko egin beharko da hilabeteko hamar eguneko epean, goian aipatutako epea amaitzen den egunetik kontaktzen hasita, baldin eta esleipendunak a) eta b) puntuetan adierazitakoak betetzen baditu. Aitzitik, beteko ez balitu, behin-behineko esleipendunari ez zaio behin betiko esleipena egingo.



Ajangizko Udala

SPKLaren 139.2. artikulua arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, esleipenak eragindako gastuak ezarriko ditu Administrazioak, entzunaldia eginez eta behar bezala ziurtatuz.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du. Esleipendunari jakinaraziko zaio, eta honek, jakinarazpena jaso eta egutegiko hamar eguneko epean ondorengoak bete beharko ditu:

- a) Administrazio honen bulegoetara etorri, proiektuaren zuinketa egiaztatze eta zuinketa-akta izenpetze.
- b) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

III. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

20. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, urriaren 30eko 30/2007 Legearen bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

21. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

22. JURISDIKZIO ESKUDUNA



Ajangizko Udala

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Ajangizen, 2008ko uztailaren 23an.